Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2328

AGINDUA, 2011ko apirilaren 13koa, Kulturako sailburuarena, Euskadi literatura-sariak arautu eta horretarako dei egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak ezartzen duenez, Kultura Sailari dagozkio arte eta kultura mailako jardunekin eta horien hedapenarekin loturiko eginkizunak. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio martxoaren 22ko 45/2011 Dekretuak, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak.

Euskadi literatura-sariak hainbat modalitatetan ematen dira, eta aurreko urtean argitaratutako literatura lanen kalitatea saritzen dute, horrela literaturaren alorreko idazle, itzultzaile eta ilustratzaileen sorkuntza sustatzeko.

Kultura Sailak urtero egiten du sari hauetarako deialdia, asmo bikoitzarekin: saritutako lanak zabaltzea eta egileak berak eta egin dituzten lanak ezagutaraztea.

Liburugintzaren eta literaturaren alorrean duten oihartzun eta garrantziagatik, sari hauek euskal literatura sustatzeko eta zabaltzeko tresnarik egokienetako bat bihurtu dira.

Kultura Sailaren egitekoa da, besteak beste, literatura-sorkuntza errazten duten jarduerak sustatzea. Beraz, bere zeregina betetzeko, Kultura Sailak egoki deritzo Euskadi literatura-sariak, hainbat modalitatetan, arautzeari eta horretarako deialdia egiteari.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea Euskadi literatura-sariak, haien zortzi modalitateetan, arautzea eta horretarako dei egitea da:

a) Euskarazko literatura.

b) Gaztelaniazko literatura.

c) Euskarazko haur eta gazte literatura.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2328

ORDEN de 13 de abril de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan y convocan los Premios literarios Euskadi.

De conformidad al Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, competen al Departamento de Cultura las funciones relativas a actividades artísticas y culturales así como su difusión. Las referidas funciones se atribuyen en el seno del Departamento de Cultura, y a través del Decreto 45/2011, de 22 de marzo, por el que se establece su estructura orgánica, a la Dirección de Promoción de la Cultura.

Los premios literarios Euskadi, en sus diferentes modalidades, premian la calidad de obras literarias publicadas el año anterior, promocionando así la creación de escritores, traductores e ilustradores en el ámbito de la expresión literaria.

Estos premios, convocados anualmente por el Departamento de Cultura, permiten la divulgación de las obras premiadas y facilita, de este modo, el conocimiento de los autores y autoras, así como del resto de su producción literaria.

La repercusión y trascendencia lograda en el sector del libro y la literatura han convertido a estos premios en uno de los instrumentos más idóneos para la promoción y difusión de la literatura vasca.

Entre los cometidos que corresponden al Departamento de Cultura se encuentra el fomento de actividades que propicien la creación literaria. Por lo tanto, en cumplimiento de sus funciones, el Departamento de Cultura cree procedente regular y convocar los premios literarios Euskadi en sus diferentes modalidades.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden regular y convocar los premios literarios Euskadi, en sus ocho modalidades:

a) Literatura en euskera.

b) Literatura en castellano.

c) Literatura infantil y juvenil en euskera.

d) Gaztelaniazko haur eta gazte literatura.

e) Euskarazko literatura itzulpena.

f) Literatura lanaren ilustrazioa.

g) Euskarazko saiakera.

h) Gaztelaniazko saiakera.

2.– Sarien asmoa da bizirik dauden egileek aipatutako literatura generotan argitaratutako lan nabarmenena saritzea, kontu horietan adituak direnen arabera.

2. artikulua.– Sarien izaera.

1.– Euskadi literatura sariak 18.000 euro gordinez hornituta daude modalitate bakoitzeko. Diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie. Saritutako pertsonek, era berean, Euskadi literatura sarientzat berariaz Jose Ibarrola Bellidok eginiko «Liburu Nabigatzaile» izeneko eskulturaren ale zenbatua jasoko dute.

2.– Horrez gain, saritutako lanaren egileek (euskarazko itzulpenaren kasuan salbu) beste 4.000 euro gordin ere jaso izango dituzte, saritutako lana jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ostean.

3. artikulua.– Kudeaketa organoa.

Honako deialdi honen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio.

4. artikulua.– Literatura lanen betekizunak.

1.– Euskadi literatura sariak eskuratzeko aukera, argitaratze unean bizirik dauden egileek idatzi, itzuli edo ilustratutako lanek izan ahalko dute. Lan horiek lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak izan beharko dute, argitaratzeko urtea Lege-gordailuaren zenbakian agertzen dena izanda, eta zabalkundea egiteko bete beharreko lege-baldintzak betetzen dituztela. Lanaren zati idatziaren edo grafikoaren egilea pertsona fisikoak izango dira.

2.– Hala ere, kasuan kasuko modalitatean sari hau azken hiru deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta goiko atalean zehaztutako baldintzak bete.

3.– Modalitate bakoitzaren betekizunak.

a) Euskarazko literatura: jatorriz euskaraz idatzitako literatura-sorkuntzako lanak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak.

b) Gaztelaniazko literatura: jatorriz gaztelaniaz idatzitako literatura-sorkuntzako lanak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak.

d) Literatura infantil y juvenil en castellano.

e) Traducción literaria al euskera.

f) Ilustración de obra literaria.

g) Ensayo en euskera.

h) Ensayo en castellano.

2.– Cada uno de los premios pretende distinguir la obra de aquellos autores vivos que, conforme al criterio de especialistas en la materia, resulten sobresalientes en cualquiera de los géneros literarios previstos.

Artículo 2.– Naturaleza de los premios.

1.– Los premios literarios Euskadi, estarán dotados con 18.000 euros brutos para cada una de las modalidades, que serán entregados a los autores de las obras que resulten premiadas. Las personas premiadas recibirán también un ejemplar numerado de la escultura «Libro Navegable» realizada por José Ibarrola Bellido para los premios literarios Euskadi.

2.– El premio conllevará, asimismo, para los autores de las obras premiadas (excepto en la modalidad de traducción al euskera), la concesión de 4.000 euros brutos tras la formalización de un contrato de edición de la obra premiada en un idioma diferente al original.

Artículo 3.– Órgano gestor.

La gestión de la presente convocatoria corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 4.– Requisitos de las obras.

1.– Podrán optar a los premios literarios Euskadi los libros escritos, traducidos o ilustrados por autores y autoras vivos en el momento de la publicación que, cumpliendo con los requisitos legales exigidos para su edición, hayan sido publicados por primera vez en el año 2010, entendiéndose por año de publicación el que aparece en el número del Depósito Legal. El autor o autores de la parte escrita o gráfica de la obra que se presenta al premio deberán ser personas físicas.

2.– No obstante, no serán tenidas en cuenta para cada modalidad aquellas obras que pese a reunir los requisitos establecidos en el apartado anterior hayan sido escritas o ilustradas por personas galardonadas con el presente premio en alguna de las tres ediciones anteriores en la misma modalidad.

3.– Requisitos de las obras para cada modalidad.

a) Literatura en euskera: obras de creación literaria escritas originalmente en euskera y publicadas por primera vez en el año 2010.

b) Literatura en castellano: obras de creación literaria escritas originalmente en castellano y publicadas por primera vez en el año 2010.

c) Euskarazko haur eta gazte literatura: jatorriz euskaraz idatzitako haur eta gazte literatura-sorkuntzako lanak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak.

d) Gaztelaniazko haur eta gazte literatura: jatorriz gaztelaniaz idatzitako haur eta gazte literatura-sorkuntzako lanak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak.

e) Euskarazko literatura itzulpena: beste edozein hizkuntzatatik euskarara itzulitako literatura lan berriak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak. Saria eskuratzeko aukera izango dute, baita ere, beste itzultzaile profesional batek gutxienez hamar urte lehenago argitaratutako lan beraren beste itzulpen batekin editatzen diren lanek.

f) Literatura lanaren ilustrazioa: liburu tankeran argitaratutako literatura lanak (albumak, liburu ilustratuak, nobela grafikoak, komikiak), ilustrazio-zati esanguratsua dutenak. Lanaren zati ilustratua originala izan behar du, 2010. urtean argitaratua eta aurretik liburu moduan argitaratu gabea.

g) Euskarazko saiakera: jatorriz euskaraz idatzitako saiakera-lanak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak.

h) Gaztelaniazko saiakera: jatorriz gaztelaniaz idatzitako saiakera-lanak, lehen aldiz 2010. urtean argitaratuak.

4.– Gainera, gaztelaniazko literaturaren modalitatean, gaztelaniazko haur eta gazte literaturan, gaztelaniazko literatura lanen ilustrazioan eta gaztelaniazko saiakeran, egileek hauetako baldintza bat gutxienez bete beharko dute:

a) Euskadiko Autonomia Erkidegoan jaio izana edo bertan administrazio-egoitza izatea agindu hau argitaratzen den unean, edo argitaratu aurretik ere administrazio-egoitza eduki izana urte batez gutxienik Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

b) Gaztelaniazko literaturaren modalitatean, gaztelaniazko haur eta gazte literaturan eta gaztelaniazko saiakeran, idazlea, pertsona fisiko bezala, Euskadiko Autonomia Erkidegoko literatura-elkarteren baten barruan egotea. Literatura lanen ilustrazio sarian, ilustratzailea pertsona fisiko bezala, Euskadiko Autonomia Erkidegoko ilustratzaile-elkarteren baten barruan egotea.

c) Saria irabazteko lana Euskadiko Autonomia Erkidegoko argitaletxe batean argitaratu izana, edo Euskadiko Editoreen Elkartearekin edo Euskal Editoreen Elkartearekin loturiko argitaletxe batean.

5. artikulua.– Hautagai-zerrendak eta dokumentazioa aurkeztea.

c) Literatura infantil y juvenil en euskera: obras de creación literaria, de carácter infantil y juvenil, escritas originalmente en euskera y publicadas por primera vez en el año 2010.

d) Literatura infantil y juvenil en castellano: obras de creación literaria, de carácter infantil y juvenil, escritas originalmente en castellano y publicadas por primera vez en el año 2010.

e) Traducción literaria al euskera: obras nuevas de traducción literaria desde cualquier otra lengua al euskera, publicadas por primera vez en el año 2010. Podrán optar al premio aquellas obras que se editen con otra traducción de idéntica obra, publicada al menos diez años antes por otro profesional de la traducción.

f) Ilustración de obra literaria: obras de carácter literario publicadas en forma de libro en el año 2010, ya sean álbumes, libros ilustrados, novelas gráficas o cómics, que contengan una parte significativa de ilustración. La parte ilustrada de la obra debe ser original, no publicada anteriormente como libro.

g) Ensayo en euskera: obras de ensayo escritas originalmente en euskera y publicadas por primera vez en el año 2010.

h) Ensayo en castellano: obras de ensayo escritas originalmente en castellano y publicadas por primera vez en el año 2010.

4.– Además, en las modalidades de literatura en castellano, literatura infantil y juvenil en castellano, ilustración de obra literaria y ensayo en castellano, los autores y autoras habrán de cumplir, al menos, uno de estos requisitos:

a) Haber nacido en la Comunidad Autónoma del País Vasco o tener vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma del País Vasco en el momento de publicación de esta Orden, o haber tenido vecindad administrativa durante un período mínimo de un año en la Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad a la publicación de esta Orden.

b) En las modalidades de literatura en castellano, literatura infantil y juvenil en castellano, y ensayo en castellano, pertenencia de los escritores o escritoras como personas físicas a alguna asociación literaria sita en la Comunidad Autónoma del País Vasco. En el caso del premio a la ilustración de obra literaria, pertenencia del ilustrador o ilustradora como persona física a alguna asociación de ilustradores sita en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Haber publicado la obra aspirante al premio en una editorial radicada en la Comunidad Autónoma del País Vasco o asociada al Gremio de Editores de Euskadi o a la Asociación de Editores en Lengua Vasca.

Artículo 5.– Presentación de candidaturas y documentación.

1.– Edozein pertsona fisikok zein juridikok, bai publikoak bai pribatuak, aurkeztu ahal izango ditu sarirako hautagaiak, baita lanaren egileak berak ere. Edonola ere, hautagaiak aurkezteko baino lehen lanaren egileen aldez aurretiko onespen dokumentatua beharko da.

2.– Sarirako hautagai bakoitzarekin batera, I. eranskina osorik betea eta lan hautagaiaren sei ale aurkeztu beharko dira, lana paperean argitaratzen bada, edo edizio digitalerako esteka hala badagokio.

3.– Lan hautagaiak eta aurreko atalean adierazitako dokumentazioa honako helbide honetara bidali behar dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bideren bitartez: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritza; Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

4.– Sarirako hautagaiak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2011ko maiatzaren 31n amaituko.

5.– Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

6. artikulua.– Epaimahaiak.

1.– Lanen kalitatea neurtu eta Euskadi literatura saria, kasuan kasuko modalitatean, nori egokituko zaion erabakitzea, bost kidez osatuta egongo den epaimahaiari dagokio. Epaimahaikideak abstenitu egingo dira eta ezetsiak izan daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritako kasuetan.

2.– Epaimahaia osatzeko orduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan dioena beteko da. Kulturako sailburuak izendatuko ditu epaimahaikideak, eta horien artean bat presidentea izango da.

3.– Epaimahaikideak modalitate bakoitzean:

a) Euskarazko literatura:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) proposatutako pertsona bat.

1.– Las candidaturas a los premios podrán ser presentadas por cualquier persona física o jurídica, tanto pública como privada, incluido el autor o autora de la obra. En cualquier caso, para la presentación de las candidaturas se deberá contar con la conformidad previa y documentada de la persona o personas autoras de la obra candidata.

2.– Junto con cada una de las candidaturas a los premios habrán de remitirse el anexo I completado y seis ejemplares de la obra candidata si la publicación ha sido en papel, o acceso a la edición digital.

3.– Las candidaturas, junto con la documentación establecida en el apartado anterior, deberán dirigirse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

4.– El plazo de presentación de candidaturas a los premios, comenzará el día siguiente a la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, y finalizará el día 31 de mayo de 2011.

5.– En el supuesto de que se apreciase la falta de documentos requeridos para la admisión a trámite de la solicitud o defectos formales en aquéllos, así como en el supuesto de que se observaran defectos en la documentación alegada para su valoración, se le requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición o decaída en su derecho al trámite, previa resolución.

Artículo 6.– Los jurados.

1.– La evaluación de la calidad de las obras y la propuesta de concesión de los premios literarios Euskadi, en sus diferentes modalidades, corresponderá a un jurado compuesto por cinco personas. Éstas deberán abstenerse y podrán ser recusadas en los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– En el momento de formar el jurado se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Los miembros del jurado, serán designados por la Consejera de Cultura, ostentando uno de ellos la presidencia del mismo.

3.– Miembros del jurado para cada modalidad:

a) Literatura en euskera:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la asociación Euskal Idazleen Elkartea (EIE).

– Euskadiko Idazleen Elkarteak (AEE-EIE) proposatutako pertsona bat.

– Literaturaren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duten bi pertsona, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

b) Gaztelaniazko literatura:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) proposatutako pertsona bat.

– Euskadiko Idazleen Elkarteak (AEE-EIE) proposatutako pertsona bat.

– Literaturaren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duten bi pertsona, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

c) Euskarazko haur eta gazte literatura:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Galtzagorri elkarteak proposatutako pertsona bat.

– Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Literaturaren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duten bi pertsona, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

d) Gaztelaniazko haur eta gazte literatura:

– Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarteak (ALDEE) proposatutako pertsona bat.

– Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Literaturaren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duten hiru pertsona, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

e) Euskarazko literatura itzulpena:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE)proposatutako pertsona bat.

– Euskaltzaindiak proposatutako pertsona bat.

– Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Itzulpengintzaren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duen pertsona bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatua.

f) Literatura lanaren ilustrazioa:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalak (APIE) proposatutako pertsona bat.

– Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Una persona propuesta por la asociación de Escritores de Euskadi (AEE-EIE).

– Dos personas de reconocida competencia y prestigio en el ámbito literario propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

b) Literatura en castellano:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la asociación Euskal Idazleen Elkartea (EIE).

– Una persona propuesta por la Asociación de Escritores de Euskadi (AEE-EIE).

– Dos personas de reconocida competencia y prestigio en el ámbito literario propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

c) Literatura infantil y juvenil en euskera:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la asociación Galtzagorri.

– Una persona propuesta por la Universidad del País Vasco.

– Dos personas de reconocida competencia y prestigio en el ámbito literario propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

d) Literatura infantil y juvenil en castellano:

– Una persona propuesta por la Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación (ALDEE).

– Una persona propuesta por la Universidad del País Vasco.

– Tres personas de reconocida competencia y prestigio en el ámbito literario propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

e) Traducción literaria al euskera:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la asociación Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea (EIZIE).

– Una persona propuesta por Euskaltzaindia.

– Una persona propuesta por la Universidad del País Vasco.

– Una persona de reconocida competencia y prestigio en el ámbito de la traducción, propuesta por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

f) Ilustración de obra literaria:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la Asociación Profesional de Ilustradores de Euskadi (APIE).

– Una persona propuesta por la Universidad del País Vasco.

– Ilustrazioaren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duten bi pertsona, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

g) Euskarazko saiakera:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Mondragon Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Deustuko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Saiakeraren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duen pertsona bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

h) Gaztelaniazko saiakera:

– Aurreko urteko irabazlea.

– Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Mondragon Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Deustuko Unibertsitateak proposatutako pertsona bat.

– Saiakeraren munduan aitortutako gaitasuna eta prestigioa duen pertsona bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proposatuak.

4.– Idazkari-lanetan Eusko Jaurlaritzako funtzionario bat arituko da, hori ere Kultura sailburuak izendatua. Iritzia eman ahal izango du, baina botorik ez.

5.– Erabakia hartu baino lehenago, EHAAn argitaratuko den Kulturako sailburuaren agindu baten bidez emango da jakitera epaimahaien osaera.

6.– Modalitate bakoitzean, epaimahaiek irizpide hauek hartuko ditu kontuan.

a) Euskarazko literaturaren modalitatean, gaztelaniazko literaturan, euskarazko haur eta gazte literaturan eta gaztelaniazko haur eta gazte literaturan:

– Lanen kalitate literarioa.

– Originaltasuna.

– Literatura-hizkeraren egokitasuna.

b) Euskarazko itzulpenaren modalitatean:

– Erregistroaren egokitasuna.

– Jatorrizkoaren izpiritua bereganatzea.

– Balio eta hizkuntza literarioen erantzuna.

c) Literatura-lanaren ilustrazioaren modalitatean:

– Ilustrazioen kalitatea.

– Originaltasuna.

– Hizkuntza grafikoaren egokitasuna.

– Dos personas de reconocida competencia y prestigio en el ámbito de la ilustración, propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

g) Ensayo en euskera:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la Universidad del País Vasco.

– Una persona propuesta por la Universidad de Mondragón.

– Una persona propuesta por la Universidad de Deusto.

– Una persona de reconocida competencia y prestigio en el ámbito del ensayo, propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

h) Ensayo en castellano:

– La persona ganadora el año anterior.

– Una persona propuesta por la Universidad del País Vasco.

– Una persona propuesta por la Universidad de Mondragón.

– Una persona propuesta por la Universidad de Deusto.

– Una persona de reconocida competencia y prestigio en el ámbito del ensayo, propuestas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

4.– Ejercerá las funciones de secretaría de los jurados un funcionario o funcionaria del Gobierno Vasco, asimismo, designado por la Consejera de Cultura, que actuará con voz pero sin voto.

5.– La composición de los jurados se hará publica con anterioridad al fallo mediante la inserción en el BOPV de la Orden de la Consejera de Cultura.

6.– Los jurados, para el desarrollo de su trabajo, tendrán en cuenta los siguientes criterios para cada modalidad.

a) En las modalidades de literatura en euskera, literatura en castellano, literatura infantil y juvenil en euskera, y literatura infantil y juvenil en castellano:

– Calidad literaria de los trabajos.

– Originalidad.

– Idoneidad del lenguaje literario.

b) En la modalidad de traducción al euskera:

– Adecuación del registro.

– Asimilación del espíritu del original.

– Respuesta a los valores y lenguaje literario.

c) En la modalidad de ilustración de obra literaria:

– Calidad de las ilustraciones.

– Originalidad.

– Idoneidad del lenguaje gráfico.

d) Euskarazko saiakeraren eta gaztelaniazko saiakeraren modalitateetan:

– Lanen kalitate literarioa.

– Sormena eta landutako gaiaren originaltasuna.

– Erabilitako hizkuntzaren egokitasuna.

7. artikulua.– Lan finalistak.

1.– Epaimahaiek parte hartuko duten lanak aztertu, eta egokia ikusten badute, ezarririko irizpideak aplikatuz, finalisten zerrenda prestatuko dute.

2.– Kultura Sailak lan horien berri eman ahal izango du.

8. artikulua.– Sariari buruzko erabakia.

1.– Epaimahai bakoitzak bere modalitatean saria emateko proposamen arrazoitua egingo du. Erabakiak botoen gehiengoaren arabera emango dira eta, berdinketarik egonez gero, presidentearen botoak ebatziko du. Epaimahaiko idazkariak bertako jardun eta erabakien berri jasoko du aktan, baita epaia funtsatzen duen deliberamendu arrazoitua ere.

2.– Kulturako sailburuak bidezko agindua emango du epaimahaiaren proposamena berretsiz, Euskadi Saria modalitate bakoitzean merezi duen lana izendatzeko. Agindu hori sei hilabeteko epean interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio, agindu hau buletinean argitaratzen denetik kontatuta.

3.– Agindua emateko epea igarota, interesdunak bere eskubidea ezetsi dela ulertuko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan jasotako ondorioetarako.

4.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da, saritutako pertsona eta lanekin, eta hedabideetan Kultura Sailak bidera ditzakeen zabalkunde-ekintzak egin ahal izango dira.

5.– Modalitate bakoitzean saria inori eman gabe uztea ere erabaki ahal izango da, epaimahaiaren iritziz lan bakar batek ere beharrezko kalitate-baldintzak betetzen ez baditu.

6.– Sari-ematea berariaz antolaturiko ekitaldi batean egingo da.

9. artikulua.– Sariaren ordainketa.

1.– Saria ematen duen agindua hartutakoan, gehienez hiru hilabeteko epean sariaren ordainketa egingo da.

2.– Saritutako lanaren egileari (itzulpenaren modalitatean izan ezik) bere lana jatorrizko hizkuntza ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua egite aldera eman beharreko diru-kopurua, kontratua

d) En las modalidades de ensayo en euskera y ensayo en castellano:

– Calidad literaria de los trabajos.

– Creatividad y originalidad del tema abordado.

– Idoneidad del lenguaje utilizado.

Artículo 7.– Obras finalistas.

1.– Los jurados evaluarán las obras participantes, elaborando una relación de las que, si lo consideran oportuno, en aplicación de los criterios establecidos, estimen finalistas.

2.– El Departamento de Cultura podrá difundir la relación de los mismos.

Artículo 8.– Fallo del premio.

1.– Cada jurado formulará una propuesta razonada de concesión de premio para su modalidad. Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos, pudiendo dirimir la o el Presidente los empates que se puedan producir. El o la Secretaria del Jurado levantará actas de cuantas actuaciones y acuerdos se adopten, debiendo figurar el dictamen razonado que fundamente el fallo del premio.

2.– La Consejera de Cultura ratificará la propuesta del jurado mediante la correspondiente orden, designando la obra merecedora del premio Euskadi para cada modalidad, orden que será notificada a cada uno de los y las interesadas, en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de esta orden en el boletín.

3.– Transcurrido el plazo máximo para dictar la orden, el interesado podrá considerar desestimada su solicitud a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de la Administración Pública y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Se publicará en un único anuncio en el BOPV una relación de las personas y obras premiadas para cada modalidad, sin perjuicio de cuantas actividades difusoras emprenda el Departamento de Cultura ante los medios de comunicación.

5.– La propuesta de concesión del premio para cada modalidad podrá consistir en la declaración de desierto del mismo cuando el jurado estime que ninguna de las obras reúne los requisitos de calidad exigibles.

6.– La entrega de los premios se hará en un acto público convocado al efecto.

Artículo 9.– Pago del premio.

1.– El abono del premio se realizará una vez adoptada la orden que concede el premio, en un plazo máximo de tres meses.

2.– El pago de la cuantía a otorgar al autor o autora de la obra premiada (excepto en la modalidad de traducción) por la formalización del contrato para la edición de la misma en idioma diferente al de la obra

sinatu dela Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan egiaztatu ondoren ordainduko da (beti ere hurrengo urteko ekitalditik aurrera). Horretarako, kontratuaren kopia bidali beharko da 2013ko martxoaren 31 baino lehen.

3.– Bestalde, saritutako lanaren egileak berak aukeratutako hizkuntzara itzulitako eta argitaratutako lan horren hiru ale bidali beharko ditu Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzara, editatu eta, gehienez, hilabeteko epean.

10. artikulua.– Ez betetzeak.

Deialdi honetan finkatutako edozein betebehar zein beste edozein xedapenetan jasota egonik deialdi honi aplikatu dakiokeena betetzen ez bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoari ekingo zaio eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari. Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen. Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautu zuen.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Saritutako pertsonek ezin dute izan, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigor administratibo edo penalik, bai eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik dutenek ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexudiskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenek barne.

Bigarrena.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Kultura Sustatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

premiada se realizará a partir del siguiente ejercicio, previa acreditación de su suscripción ante la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura. La misma deberá realizarse mediante la remisión de una copia del contrato, con anterioridad al 31 de marzo de 2013.

3.– Asimismo, el autor o autora de la obra premiada deberá remitir a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura tres ejemplares de la obra traducida a la lengua de elección en el plazo máximo de un mes desde su edición.

Artículo 10.– Incumplimientos.

El incumplimiento de cualquier obligación establecida en la presente convocatoria, así como en cualquier disposición de carácter general aplicable a la misma, dará lugar a la aplicación de lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Las personas premiadas no deberán estar sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o hallarse incursas en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Segunda.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. El o la responsable de este fichero es la Dirección de Promoción de Cultura del Departamento de Cultura. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Berorren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Kulturako sailburuari hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 13.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y autorizan a la Dirección de Promoción de la Cultura a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.– La presente orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de abril de 2011.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I.ERANSKINA / *ANEXO I*

2011ko EUSKADI LITERATURA SARIETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA
SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN EN LOS PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA AÑO 2011

Eskatzailearen datuak / *Datos del solicitante*	
Izena/*Nombre*	
Helbidea/*Dirección*	
Udalerria/*Municipio*	
Lurraldea/*Territorio*	
Herrialdea/*País*	
E-maila/*E-mail*	
Telefonoa/*Teléfono*	

Egilearen datuak / *Datos del autor o autora*	
Abizenak/*Apellidos*	
Izena/*Nombre*	
E-maila/*E-mail*	
Telefonoa/*Teléfono*	

Lanaren xehetasunak / *Datos de la obra* Tituloa/*Título*	
ISBN/*ISBN*	Lege gordailua / *Depósito Legal*
Argitaletxea/*Editorial*	
Euskarria/*Soporte* - Papera/*Papel*.....☐ - Digitala/*Digital* .....☐	
Zer modalitatetan aurkezten da lana / *Modalidad a la que se presenta la obra* - Euskarazko literatura / *Literatura en euskera* .....☐ - Gaztelaniazko literatura / *Literatura en castellano* .....☐ - Euskarazko haur eta gazte literatura / *Literatura infantil y juvenil en euskera*.....☐ - Gaztelaniazko haur eta gazte literatura / *Literatura infantil y juvenil en castellano* .....☐ - Euskarazko literatura itzulpena / *Traducción literaria al euskera* .....☐ - Literatura lanaren ilustrazioa / *Ilustración de obra literaria* .....☐ - Euskarazko saiakera / *Ensayo en euskera*.....☐ - Gaztelaniazko saiakera / *Ensayo en castellano* .....☐	

Honako modalitate hauetan: gaztelaniazko literatura, gaztelaniazko haur eta gazte literatura, literatura lanen ilustrazioa, eta gaztelaniazko saiakera / *En las modalidades: literatura en castellano, literatura infantil y juvenil en castellano, ilustración de obra literaria, y ensayo en castellano.* Egileak betetzen duen baldintza / *Requisito del autor/autora* - Jaiotza/*Nacimiento*.....☐ - Administrazio egoitza / *Vecindad administrativa*.....☐ - Elkarte bateko kidetasuna / *Pertenencia a asociación*.....☐ - Argitaletxea / *Editorial* .....☐ (Erantsi egiaztatzen duen agiria) / *(Adjuntar documentación que lo acredite)*
Eskaera honekin batera lanaren 6 ale bidali / *Enviar junto con la solicitud 6 ejemplares de la obra*

Tokia/*Lugar*, eguna/*fecha*
Izpta./*Fdo*.

Egilea/*Autor-a*

Lanaren egilea eta dokumentu hau sinatzen duenak, aurkeztutako lana ez dela lehenago argitaratu adierazten du, eta Euskadi Literatura Sarietan bere kandidaturari dagozkion datuak zabaltzeko baimena ematen dio Kultura Sailari. / *El autor/autora de la obra y firmante de este documento, declara que la obra presentada no ha sido editada anteriormente y autoriza al Departamento de Cultura a difundir los datos referentes a su candidatura a los Premios Euskadi de Literatura.*

KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA - KULTURA SAILA EUSKO JAURLARITZA
DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DE LA CULTURA - DEPARTAMENTO DE CULTURA GOBIERNO VASCO